



BARREN  
TOKIKOM



# **Iriondo taberna, Elgoibarko historiaren lekuko**

matricúlate en  
**aek**

euskara praktikoa

Izena eman hilaren 25a arte

**AEKn, IRAKASLE BATEK  
BIK BESTE BALIO DU.**

Irakasten daki eta  
ikas dezazun nahi du.

**UN/A PROFESOR/A DE  
AEK VALE POR DOS.**

Sabe enseñar y  
quiere que aprendas.



Jonas Benhabib - Aizpuru, 2017. Aizpuru

**EUSKARA IKASTAROAK**

**CURSOS DE EUSKERA**

**Elgoibarko AEK euskaltegia  
Gabriel Kurutzelaegi 10**

(Toletxegain tren geltokiaren besteko aldean)

607 601 423

[elgoibar@aek.eus](mailto:elgoibar@aek.eus)

Baldintzak beteta, matrikula erdi-prezioan eta bekak udalari esker.



**SONIA**

*"Mendoren euskara behar dut egunerokoan  
eta AEK euskaltegiak laguntza handia  
ematen di euskara ikasteko bide horretan"*  
B2 = 2. MAILA



**JOSU**

*"Elonkizunean beharbada, izango dudaleko  
beharra eta neurri burua janzteko, etretik  
euskaldun garrantok ere badaukagutako zer ikasi"*  
B2 = 2. MAILA



**NAHIA**

*"Lanerako"*  
C1 = 3. MAILA



**YOLANDA**

*"Por mi hija y para entender  
el otro idioma de mi vida  
que es el euskera"*  
A1



GURE **IZAERA**  
**KULTURA**  
**HIZKUNTZA** LEHENA.

**GEUREA LEHENA.**



## Guk eman dugu izena!

SONIA ARANBARRI, Ibarrenea okindegia



◆ Zer dela eta eman du izena Ibarrenea okindegiak Euskaraldian?


Euskaraz bizi naizelako, eta iruditu zitzaidalako horrelako ekimenetan euskaldunok ez badugu parte hartzen, euskaraz ez dakitenek ere ez dutela hartuko.

◆ Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu bezeroekin?

Niretzako normalena euskaraz egitea da, eta saiatzen naiz bezeroekin euskaraz egiten. Dendara bezero asko eta askotarikoak etortzen dira, baina gehienak euskaldunak direla esango nuke, edo behintzat euskaraz ulertzen dutenak. Gehienak gainera ezagutzen ditut, ia beti jende berbera etortzen delako, orduan badakit bakoitzari nola hitz egin behar diodan. Nik euskaraz egiteko ohitura daukat denekin, eta ezezagunekin ere lehenengo hitza euskaraz egiten dut beti. Gero, euskaraz ez badaki, bere hizkuntzara moldatzen naiz.

◆ Euskaraldia bezalako egitasmoak beharrezkoak di-

MENTXU ISUSKITZA, KZgunea



◆ Zergatik eman du izena KZguneak Euskaraldian?

Neuretik erantzungo dizut. Euskalduna naizelako eta euskara nire bizitzan garrantzitsua delako eman dut izena. Ama hizkuntza dut, eta euskara zaindu egin behar dugula iruditzen zait.

◆ KZgunean zein hizkuntza nagusitzen da?

Ikastaroak euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen ditugu, eta gero erabiltzaileek aukeratu dute. Elgoibarren, gaztelaniazko taldeak osatzen dira errazago. Jendeak euskaraz jakin arren, askok nahiago izaten dute ikastaroak gaztelaniaz egin. KZguneko erabiltzaileen profila begiratu, normala iruditzen zait. Helduak dira gehienak, eskola-garaian gaztelaniaz ikasi zutenak, eta ohituago daude ikastaroak gaztelaniaz egiten. Gazteak gutxiago etortzen dira gurera. Kasu horretan, euskaraz ikasi dutenez, euskarazko ikastaroak au-

*“Euskaldunok ez badugu horrelako ekimenetan parte hartzen, ez dakitenek ere ez dute hartuko”*

rela uste duzu?

Bai. Aurreko edizioan ere hartu nuen parte, eta oso interresgarria iruditu zitzaidan. *Ahobizi* izan nintzen, eta ondo moldatu nintzen. Dendan ni bakarrik egoten naiz, eta bezeroek badakite Ibarrenea euskaraz erosteko aukera dutela. Nik uste dut horrelako ekimenekin jendea kontzientziatu egiten dela eta gehiago erabiltzen duela euskara, egun zehatz horietan bada ere.

◆ Merkataritzan eta ostalaritzan zein hizkuntza nagusitzen dela esango zenuke?

Nik uste dut oraindik ere jende gehienak gaztelaniara jotzen duela. Jende askok euskaraz badaki, baina ez dute denek erabiltzen. Baserritarrekin, esaterako, konturatu izan naiz euskaraz jakin arren, zenbakiekin hobeto moldatzen direla gaztelaniaz, eta askotan ni neu ere bai. Guk gaztelaniaz ikasi genuen eskolan, eta kobratzeko orduan askotan erabiltzen dugu gaztelania.

*“Euskaraldia bezalako ekimen hauek garrantzitsuak dira euskarari balioa emateko”*

keratzen dituzte, baina gutxi dira. Gazteak digitalizatuta datoz eskolatik eta ez daukate gure ikastaroen beharrik.

◆ Informatika eta teknologiaren munduko hizkuntza zein da?

Guk eskaintzen ditugun ikastaroetako programak gaztelaniaz eta euskaraz daude, eta dinamizatzaileok ere ikastaroak bi hizkuntzatan emateko gaitasuna daukagu. Kontua da gutxieneko jende-kopuru bat eskatzen dugula taldea osatzeko eta Elgoibarren euskarazko eskaera txikiagoa dela.

◆ Beharrezkoak iruditzen zaizkizu Euskaraldia bezalako ekimenak?

Bai. Gaur gaurkoz oraindik ere jende gutxi hitz egiten du euskaraz eta egoera horretan oso erraza da hizkuntza nagusiak irabaztea. Uste dut azken urteotan hobetu dela egoera, baina beti egon behar dugu adi. Euskaraldia bezalako ekimen hauek garrantzitsuak dira euskarari balioa emateko, eta nik entitate guztiak animatuko nituzke izena ematera.

Zuen entitateak ere Euskaraldian parte hartu nahi badu:

DEITU: 625 709 365 - IDATZI: [elgoibar@euskaraldia.eus](mailto:elgoibar@euskaraldia.eus)

Irailean amaituko da entitateek Euskaraldian izena emateko epea.





Ez da berria, beldurrak paralizatu egiten gaitu. Behin eta berriz entzuten genuen "beldurra" hitza zoramen guzti honen hasieran, eta orain, zenbait hilabete pasa diren honetan, ez dugu horrenbeste aipatzen, baina uneoro sentitzen dugu. Beldurrarekin bizitzen ikasi dugu, beldurra ingurukoei, beldurra lekuei, beldurra etorkizunari, beldurra irailak lanik gabe utziko ote gaituen pentsatzeari, ziurgabetasunari, beldurra haurrak eskolara bidaltzeari, lagunak parrandan ateratzeari. Beldurra izan diogu herriko jaietan gerta zitekeenari, eta beldurrak berak ez digu uzten

ezer gertatu ez izanaren lasaituaz gozaten.

Beldurraren izenean energia guztia bideratu du gizartearen ahots horrek gazteak kriminalizatzerara, arrazoiz edo arrazoirik gabe, jomuga (izan) dira/gara gazteak. Ez da nire helburua gazteon jokabidea aztertzea edota epaitzea, ez nintzateke ausartuko gure jokabidea egokia izan dela esatera, ez baita hori nire helburua. Aitzitik, honekin guztiarekin gazteon jarrera "parrandazaleak" sortutako beldurrak beste hainbat lekutara begiratzea galarrazi digula azpimarratu nahi nuke.

Gazteok jopuntuan egon garen denboran ohartu ere egin gabe eman diogu

*"Ez da ba izango kulturak sor eta eralda dezakeenaren beldur garela?"*

## Beldurrak

bizkarra beste hainbat kontu garrantzitsuri, kultura tarteko. Ezin uler dezaket egunerokotasuneko espazio gehienek martxan jarraitzen duten une honetan kulturak betetzen duen hutsunea irigarria izatea. Kontzertuak, antzezlanak, bertso-saiokak... izugarri bota ditut faltan uda honetan, ez ez direlako egon, baizik eta beldurrek (zeintzuk dira beldur horiek?) ez didatelako utzi nahi beste gozaten, alde batetik (eta batez ere) jarduera kultural kopurua asko murriztu delako, eta bestetik, mugikortasuna ahalik eta gehien murrizteko agindua izan dugulako.

Egon diren kultur ekitaldiek segurtasun neurri guztiak bete dituzte, distantzia, edukiera mugatua, musukoa... eta hala ere ez da nahikoa gure beldurrak uxatzeko. Montserrat Roig idazle kataluniarrek zioen kultura dela epe luzean aukera politikorik iraultzaileena. Ez da ba izango, kulturak sor eta eralda dezakeenaren beldur garela?



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAI-LEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► PHOTO KALEAN: ESKERRIK ASKO, ELGOIBAR!

Tamaina mikroskopikoa duen izate bat mundua xakean jartzen ari da, eta Elgoibar ez dago drama horretatik at. Pandemiak eragindako larrialdi egoerak dozenaka kutsatze eta, zoritxarrez, heriotza batzuk ere eragin ditu. Bestelako ondorioak ere izan ditu, hala nola San Bartolome jaiak bertan behera uztea osasun arazoengatik. Erabaki hori kolpe handia izan zen, baina besoak jaisteko unea ez dela sinetsita eta birus moduan etor daitezkeen gaitz guztiez gain geure buruari erakutsi behar diogulako ez diogula uko egingo gure kulturari eta tradizioei, bost lagunek egoerari aurre egitea eta herriko kaleei bizitza pixka bat ematea erabaki genuen San Bartolome "ez jaietan". Horretarako aukeratutako formula Photo Kalean izan zen, Eduardo Arrillagaren argazkiekin osatutako erakusketa, elgoibartarrek hain maite dituzten bi ekitaldi ardatz zituena: sokamuturra eta Txiki Eguna. Proposamenak Elgoibarko Udalaren berehalako babesa jaso zuen, eta abuztuaren 23an ikusi zuen argia erakusketak, Kultura Sailaren eta Udal Brigadaren laguntzarekin. Erakusketa amaituta, balorazioak egiteko unea da, eta hori ezin da positiboagoa izan, Arrillagak berak dioen bezala. "Erakusketak iraun duen denboran maitasun eta gertutasun keinu ugari jaso ditut, eta horiek eskertu nahi ditut testu xume honekin. Egia da batzuek ez dutela erakusketa errespetatu, eta argazkietako

batzuei kalteak eragin dizkietela, baina egun hauetan bizi izan dudana gauza positibo guztiekin geratzen naiz, eta, bereziki, elgoibartarrek beren kultura eta tradizioengatik duten maitasunak oso bizirik jarraitzen duela egiaztatzearekin. Koldo Lizarralde nire lagun handiak esaten zidan bezala, iragana gorde behar dugu oraina berpizteko eta etorkizunean gidatzeko. Gure sustraiak eta gure kultura herri konprometitu baten arima dira. Eskerririk asko guztioi bihotzez".

**Photo Kalean taldea: Eduardo Arrillaga, Esmeralda Zapparoli, Felix Astigarraga, Jesus Mari Sarasua eta Aitor Zabala**

### ► IRAILAK 15EAN IKASLEAK GREBARA

Ikasturte berria hasi da, baina pasaden ikasturteko testuingurua ez da aldatu funtsean. Oraingoan ere begibistakoa izaten ari da instituzio eta agintari politikoaren kudeaketa negargarria ikasturte hasierari dagokionez, berrogeialdiaren osteko klaseen itzuleran izan zen moduan. Horregatik, argi diogu: hezkuntza komunitatea osatzen duen langilearen osasuna bermatzen ez den bitartean klase presentzialen gelditzea exijitzen dugu.

Era berean, aipatu beharra dago hezkuntza erreforma prozesu bat bizitzen ari dela, eta zoritxarrez, ez da ikasle langileon mesederako izango. Honen ezaugarri dira ematen ari diren aldaketa

eta gertakizun ezberdinak: trebakuntza digitalaren garrantzia handitzea, klase telematikoen erabilera normalizatzea, Huawei eta Google bezalako enpresa pribatuen esku-hartzea hezkuntzan, zeinak milaka ikasleren informazioaren eroale eta kontrolatzaile izango diren, etab.

Egoera honen aurrean, plazaratu behar den mezua argia da: hezkuntzaren gaineko langile kontrola, hezkuntza doakoa, kalitatezkoa eta unibertsala izan dadin. Hori lortzeko bidean, honakoak dira exijitzen ditugun neurriak, baita hauen berehalako aplikazioa ere:

Ikasle langileok hezkuntzara sarbidea izan dezagun bermatzea.

Ikasketa modalitate telematikokoak sortutako zailtasun akademikoek ikasleentzako ikasketa prozesua ez oztopotzea.

Lan politikoa eta militantea egiteko eskubidea, biltzeko eta manifestatzeko eskubidea, besteak beste, bermatzea.

Datozen egunetan burgesiak heziguneak irekiko ditu normaltasunaren izenean eta berme sanitariorik gabe, milaka ikasle eta familiaren osasuna arriskuan jarritz. Honen guztiaren aurrean, dei egiten dizuegu irailaren 15ean egingo den Ikasle Greban eta burutuko dugun mobilizazioan parte hartzera. Ondorioak ez dituzala langile klaseak ordaindu! Gora ikasle langileon borroka!

**Ikasle Abertzaleak**





- Zetazko Jacquard biskosa
- 300 gr Zeta
- 300 gr Lihoa
- Latex Naturala Comfort
- 1000 Microcoils 3D Spacer
- Cool Spring 900 suspentsioa
- 5 atseden gune
- 1000 Microcoils 3D Spacer
- Latex Naturala Comfort
- 300 gr Mohair Artile
- 300gr zeta
- Zetazko Jacquard biskosa

**Proba ezazu koltxoi natural batean lo egitea zer den eta bizi ezazu esperientzia lasaigarri bat. Zatoz probatzera gure dendara!**

**San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)**

## Deba ibaian agertu den bitsaren inguruan azalpenak emateko eskatu die EH Bilduk agintariei

Elgoibarko EH Bildu "oso kezkatuta" agertu da joan zen asteburuan bitsa zegoelako Deba ibaian. Ez dela lehen aldia gogora ekartzearaz batera, salatu dute "berriro ere" agerian geratu dela arazo honi behin betiko konponbidea emateko dagoen "borondate edo gaitasun falta". Azken balizko isurketa honen zergatia eta jatorria ezagutzeko eta elgoibartarrei azaltzea eskatuko die EH Bilduk agintariei, bereziki Udal Gobernuari. Era berean, ur zikinen arazketa-arazoak behingoz konpontzeko ere eskatuko dute. "Elgoibarko EH Bildun oso kezkatuta gaude aspalditik ingurumenarekin. Uste dugu gure esku dagoela gure ingurua zaintzea eta horretarako lanerako prestutasuna azaldu dugu beti. Zentzu horretan, adierazpen instituzionalak utzi eta ekintza zehatzak garatu behar ditugu, eremu lokaletik, globalean eragiteko. Alferrik da klima aldaketaren aurkako deklarazioak egitea, bertako ingurua zaintzen ez badugu", adierazi dute zabaldu duten oharrean. Horren harira esan dute aspalditik daudela kezkatuta Deba ibaiaren egoerarekin eta duela hainbat hilabete galdera eta eskaera batzuk egin zizkietela uraren kalitatea zaintzeko ardura duten erakundeei (Udala, Foru Aldundia, Jaurilaritza, Gipuzkoako Urak...), baina esan dutenez ez dute beti erantzunik jaso eta jaso dutenean erantzuna "lausoa" izan da. Elgoibarren Deba ibaiari "bizkarra emanda" bizi garela uste dute, eta Elgoibarko udal gobernuari eskatuko diote, "berriro ere", pausoak eman ditzala Elgoibarko ur zikinen arazketa arazoak konpontzeko. Era berean, azkeneko balizko isurketaren inguruko azalpenak ere eskatuko dizkiote.



### Zabalik dago gurasoentzako euskara ikastaroetan izena emateko epea

Elgoibarko Udalaren Euskara Sailak, Udal Euskaltegiak eta AEK euskaltegiak gurasoentzako hainbat euskara ikastaro antolatu dituzte, herriko ikastetxeekin elkarlanean: euskara ikasten hasteko, hobeto edo errazago berba egiteko, edota hobeto idazten eta irakurtzen ikasteko eskaintza egin dute. Ikastaroak pertsonalizatuak izango dira, ordutegia gurasoen beharretara moldatu ahal izango baita. Era berean, gurasoek Udalaren beka lortzeko aukera izango dute. 0-12 urte bitarteko umeak dituzten gurasoek matrikula erdia ordainduko dute, eta bekaren bitartez, ikastaro amaieran, baldintza batzuk betez gero, ordaindutako matrikularen erdia jasoko dute. Izena emateko epea irailaren 25ean amaituko da. Informazio gehiagorako: 943 742 731 (Udal Euskaltegia) edo 607 601 423 (AEK).

### Haurrentzako marrazki lehiaketa, 2021eko egutegia osatzeko

Elgoibarko Udaleko Euskara eta Berdintasun sailek datorren urteko egutegia osatzeko haurrentzako marrazki lehiaketa antolatu dute, herriko ikastetxeekin elkarlanean. Ekimena Elgoibarko LHko 5.mailako ikasleei dago zuzenduta eta aurtengo gaia gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna da. Udalak hamabi marrazki (Ikastolakoak 6 eta Herri Eskolakoak beste 6) aukeratuko ditu egutegian jartzeko eta marrazki horien egileak sarituko ditu.

Era berean, gogorarazi dute oraindik zabalik dagoela Ongarri argazkilari elkartearekin lankidetzan antolatutako 2021eko egutegirako argazki lehiaketan parte hartzeko epea. Interesdunek urriaren 8ra arte aurkeztu ahal izango dituzte lanak. Aurtengo gaia "irudi bat bazterkeriatik berdintasunera" izango da. Partaide bakoitzak gehienez 6 argazki aurkeztu ahal izango ditu; baina, pertsona bakoitzeko 3 argazki sarituko dituzte gehienez. Epaimahaiak 12 argazki aukeratuko ditu egutegi handirako, eta beste argazki bat, egutegi txikian jartzeko. Hala, Txankakua merkatari elkartearen dendetan gastaizeko 80 euroko bonuarekin sarituko dute aukeratutako argazki bakoitzaren egilea.

### Bertso-eskolan izena emateko epea irailaren 15era arte luzatu dute

Elgoibarko Udalak ahozko komunikazioa bertsoaren bidez lantzeko egitasmoa jarri zuen abian 2004an Gipuzkoako Bertsozale elkartearekin, Ikastolarekin eta Herri Eskolarekin lankidetzan, eta horri jarraipena eman nahian bertso-eskola biziberritu nahi du. Parte hartuko dutenen adin tartea LH3tik DBHra artekoa izango da, biak barne. Matrikulazioa irailaren 15era arte egin ahal izango da, Udalaren Euskara Sailean (943 744 366 / [euskara@elgoibar.eus](mailto:euskara@elgoibar.eus)).

## Segurtasun publikoa bermatzeko bi eraikin partzialki eraisteko lanak hasi ditu Udalak San Pedro kalean

Udal Zerbitzu Teknikoek egindako txosten baten arabera, San Pedro kaleko 5. eta 6. zenbakietako bi etxe behera erortzeko arriskua "berehalakoa" da, eta ondorioz, neurriak hartu behar izan ditu Udalak. Eraisketa- eta hobekuntza-lanak subsidiarioki gauzatzea erabaki dute arduradunek, segurtasun publikoa eta inguruko pertsonen eta ondasunen osotasuna bermatzeko. Eguaztenean hasi zituzten lanak.

Udal arduradunek jakinarazi dutenez, duela bost urte, eraikinen teilatua erori egin zen barrualderantz, eta bide publikora erortzeko arriskua zegoen. Udalak babeseko markesina bat jarri zuen eraikinen perimetroan, oinezkoen ziurtasuna bermatzeko. 2019ko azaroan beste ikuskapen-bisita bat egin zuten teknikariek, eta eraikinen teilatua barrualderantz hondoratuta zegoela ikusi zuten. Eraikinen egituraren eragiteaz gainera, oinezkoen segurtasuna arriskuan zegoela ondorioztatu zuten, erlaitza, erretena eta txinorrak bide publikora erortzeko arriskua zegoelako.

Egungo egoera baloratu eta gero, Udalak 25.000 euroko inbertsioa egingo du salbuespenezko ondorengo neurriak hartzeko: Eraikinen fatxadan finkatutako instalazioak kentzea, lehen solairuko teilatua eta fatxada eraistea mugakideei eta kontser-



batu beharreko elementuei ez eragiteko baliabide lagungarri egokiek, behe-solairuko eta mehelineko fatxada kontserbatzea, beheko solairua garbitzea, fatxadan harrizko mentsulen elementuak berreskuratzea, ondoren berreraikitze, 4. zenbakiko eraikinarekiko mehelina babestea, isolamendu termikoa emanda; beheko solairuan fatxadako baoak ixtea eta orubea drainatzeko sistemak ezartzea.

### Elgoibarko dantzariak

#### Zarauzko aurreku txapelketan hartu dute parte



Euskal Herriko 15 dantzariak hartu zuten parte joan zen asteburuan Zarauzko Aurreku Txapelketan, tartean Elgoibarko bostek: Aimar Almortzak, Maddalen Oñederrak, Markel Goenagak, Jone Gilek eta Gaizka Urangak. Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako arduradunek esan dutenez, dantzari hauek uda osoan jardun dute dantzan Zarauzko txapelketa prestatzen, eta igarri da emaitza. Azaroaren 1ean Hondarribian hartuko dute parte.

### 'Dendaostekoak' liburua aurkeztuko du Uxue Alberdik hilaren 23an, Elgoibarren, Aita Agirre kulturgunean

70eko hamarkadan zabaldu zuten Pitinxu denda Izaskun eta Mari Jose Estibaritz ahizpek, eta dendaren kronika literarioa egin du Uxue Alberdik *Dendaostekoak* liburuan. Hilaren 23an aurkeztuko du liburua Elgoibarren, Aita Agirre kulturguneko areto nagusian. Susa argitaletxeak kaleratu du liburua, eta Uxue Alberdirekin batera, Susako Leire Lopez editoreak ere hartuko du parte aurkezpenean. Koronabirusaren eraginez, aforo mugatua izango du ekimenak, eta antolatzaileek eskatu dute aurrez izena emateko. Interesatuak Elgoibarko Izarran eman dezakete izena: 943 74 16 16 / [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus). Aurkezpena 19:00etan izango da. Aforoa beteko balitz, bigarren aurkezpen bat egingo lukete 20:00etan.

## San Bartolome 'ez jaien' balorazio positiboa egin du Udalak, eta herritarren portaera eskertu du

San Bartolome 'ez jaien' balantze oso positiboa egin du Elgoibarko Udalak, eta arduradunek herritarren portaera eskertu dute. Ane Beitia alkatea, Andrea Arriola kultura zinegotzia, Blanca Salegi kultura teknikaria eta Eduardo Arrillaga *Photo kalean* erakusketaren egileak eman zuten prentsaurrekoa, eta oro har, "zuhurtzia, sen ona eta jokabide arduratsua" nagusi direla nabarmendu dute. Ane Beitiak azaldu zuenez, Udalak hasieran 60 bat ekitaldi antolatu zituen "normaltasun berriak" ezartzen zituen irizpideetara egokituta, baina uztailean jaiak bertan behera utzi eta haietarako zegoen dirua gizarte-politike-tara zuzentzea erabaki zuten. Hala ere, hiru kultur erakusketa antolatu zituzten: Eduardo Arrillagaren *Photo kalean*, Kirol Argazki Lehiaketari buruzkoa, eta erraldoi eta buruhandiena. Hirurak "oso arrakastasuak" izan direla nabarmendu zuten, baina aipamen berezia jaso zuen *Photo kalean* erakusketak. Eduardo Arrillagak berak esan zuenez sekula sentiitu ez duen esker ona eta miresmena sentiitu ditu aurtengo erakusketarekin, eta hunkituta agertu zen herritarrek erakutsi dioten babesarekin. Kirolari dagokionez, bi pilota partida jokatu zituzten Ikastolako frontoian, ikusleen edukiera mugatuta. Giro polita izan zela adierazi zuten agintariek. Bukatzeko, aparteko liskarrik ez dela egon azaldu zuten.



### Taupadaren 'Bainuetxea' emanaldirako lekua erreserbatu behar da

Taupada antzerki taldeak *Bainuetxea* antzerkia taularatuko du irailaren 24an Aita Agirre kulturegunean. Sarrera doan izango da, eta nahi duenak mahaia erreserbatu dezake emanaldia ikusteko. Interesatuak telefono honetara deitu dezakete: 681 397 579 Noel Isasi. Antzerkia 20:30ean izango da.

### Kiribil ez da itzuliko irailaren 18an

Udalak argitaratu duen iraileko kultur agendan hala agertzen bada ere, Kiribil ez da itzuliko irailaren 18an. Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika Sailak kudeatzen du Kiribilka egitasmoa, eta jakinarazi dute momentuz ez dutela berriz martxan jarriko.

### Sanloko senior taldeek asteburuan hasiko dute denboraldia Euskal Kopan

Euskal Koparekin hasiko dute denboraldia Sanlo eskubaloiz taldeko seniorrek. Emakumezkoen txapelketan Zilarrezko Mailan lehiatuko diren sei talde euskaldunek ligaxka batean hartuko dute parte iraileko aurreneko hiru asteburuetan. A multzoan Gaurve Asesores Elgoibar, Aiala Zarautz eta Lauko Errotabari Ermua izango dira; B multzoan, aldiz, Kukullaga Etxebarri, San Adrian eta Omega Peripherals Basauri. Sanloko taldeak Aiala Zarautzen aurka jokatuko du aurreneko partida, zapatuan, 19:15ean hasita, Zarauzko Aritzatalde kiroldegian.

Alcorta Forging Group senior gizonezkoen talde nagusiak, bestalde, etxean jokatuko du denboraldiko aurreneko neurketa, Romo Indupime talde bizkaitarraren kontra. IMH kiroldegian izango da norgehiagoka, domekan, 12:00etan. Elgoibartarrek Ereintza Aguaplast, Egja-Teila Fabrika eta Romo Indupime izango dituzte aurkari Euskal Kopako A Multzoan.



Bi partida hauek ikusleekin jokatuko dituzte. Baimendutako edukiera %60koa izango da.





# Hasiera errazik ez da

Astelehenean hasi zuten ikasturtea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailara arteko eskola-umeek. Batzuk pozik itzuli dira eskolara, beste batzuk gogoz kontra, eta gehienak, urduri. Hasi da beraz benetakoa erronka Hezkuntza komunitatearentzat. Hezkuntza Sailak zehaztu zuen protokoloa, zerrendatu zituen hartu beharreko neurriak paperean, baina ikastetxeetan ahal izan duten eran moldatu behar izan dira. Familiek ere ez dute erraza izan. Azken orduan iritsi zaie aurten oinarrizko informazioa eta burukomin ugari izan dituzte egunerokoa antolatzeko. Ikusi ditugu ikasturtea hasteko desiatzen zeudenak, bai eta zalantzati zeudenak ere, baina gauza bera aitortu dute galdekatutako gehienek: besteetan baino kezka handiagoarekin hasi dutela ikasturtea.

- ASIER ORBEA / AINARA ARGOTIA -

Urduritasuna agerikoa zen astelehenean ikastetxe-atarietan. Beti ere hala izan ohi da ikasturte hasieran, baina aurten, begi guztiak eta bi jarrita zeuden hezkuntzan, eta horrek are urduriago jarri ditu Hezkuntza komunitateko eragile guztiak. Protokolora egokitzeo eginahalak egin dituzte ikastetxeetan, baina neurriak paperean jasotzea beti da errazagoa. Eta lehenengo egunak erakutsi zuen findu beharreko kontuak beti izango direla eta irudimenetik ere tira egin beharko dela aurten; aurten, inoiz baino gehiago. Joan zen asteen esandakotik ere izan dira aldaketak gure ikastetxeetan. Lerro hauek idazteko unean jakinarazi zuten, esaterako, zaintza-zerbitzuari eusteko atea ireki dela Mendaron. Hasieran, ikastetxe barruan ezingo zela egin zabaldu zuten Ikastolatik eta Udalari eskatu zioten lokala Arno guraso elkarteok. Udalak ezetza eman zien gurasoei, arrazoituz ikastolako bizikidetzatalde iraunkorrak ezin zirela bermatu, eta beraz, ezin zirela Eusko Jaurlaritzaren eta Mendaro ikastolaren irizpideak mantendu. Biharamunean, aldiz, iritiz aldatu eta lokala eskaini zuen Udalak, baina, ikastetxetik "aparteegi", gurasoen gusturako. Eta negoziatuz ari zirela jakinarazi zieten ikastolatik, ikuskaritzak ez zuela legez kanpotzat ikusten zaintza-zerbitzua eskolan egitea. Lerro hauek idazteko orduan zuzendaritzaren erabakiaren zain zeuden gurasoak. Nolanahi ere, pandemiaren bilakaerari adi egon beharko dira ikastetxeetan ere, neurriak zorrotz edo malgutzeko. Reportaje honetan, baina, lehenengo egunari begira jarri gara. Hona asteleheneko irudi batzuk, eta hainbat gurasok egindako adierazpenak.

## Prebentzioa, arau

Ó urtez gorakoak maskarak jantzita itzuli ziren eskolara, eta ikastetxeetan sarrera-irteera mailakatuak antolatu zituzten lehenengo egunean: adinka sartu ziren ikasleak ikastetxetara eta Elgoibar Ikastolan tenperatura ere hartu zieten sarreran. Higiene eta segurtasun neurriak azaltzeko baliatu zuten lehenengo eguna ikastetxe guztietan, eta hesiaz kanpotik ikus zitekeenez, markatuta zituzten zoruak ikastetxeetan, Hezkuntza Sailaren protokoloan zehaztu bezala. Gurasoek ez zuten ikastetxera sartzerik izan, eta txikienei, gelara bakarrik joateko behar besteko autonomiarik ez zutenei, irakasleek lagundu zieten barrura. Hezkuntza esparruan saihestu nahi zuten irudia ikastetxeko atarietan ikusi ahal izan zen. Hantxe pilatu zen jendetza handiena, baina asteartean beste irudi bat jaso genuen: lasaiagoa.





## Eskolara, estreinakoz

2 urtekoen egokitzapenak ere eman du zeresana. Mendaro Ikastolan, ikastetxetik kanpora, atarian egiten ari dira egokitzapena eta haserre ziren ziren astelehean estreinakoz eskolatu direnen gurasoak. Elgoibar Ikastolan salbuespena egin zuten 2 eta 3 urtekoen gurasoekin, eta ikastetxera sartu ahal izan ziren egokitzapena egiteko, baina talde txikitan. Lehenengo aste honetan, gela bakoitza hiru taldetan banatu dute (4-5 ikasletakoak) eta haurren beharren arabera, gurasoak gelan bertan edota korridorean egon ziren egokitzapenak irautu zuen ordubetean. Herri Eskolan ere, antzera. Gurasoak ikastetxe barrura sartzea dute segurtasun neurri guztiak hartuta, baina gela ondoko korridorean gelditu behar dira.



## Jolasean eta bazkalorduan ere, taldetxotan

Jolastokian eta jangelan ere talde txikitan antolatuta zituzten ikasleak, bizikidetzat taldeak errespetatuta. Txokoak osatu zituzten jolastokietan eta taldetxotan jolastu ziren haurrak. Jangelan direna baino bazkaltiar gutxiago elkartzu ziren, txikiak egokitzapena egiten ari direlako, besteak beste. Nolanahi ere, gelako talde berberak osatu zituzten jangeletan.



## Eskola-garraioa

Eskola-garraioko gomendioak ere egin zituen Hezkuntza Sailak. Eskola-ume bakoitzak bere lekua izendatua izatea autobusean, esaterako, eta ikastetxeetan hartu dituzte neurriak, arriskuak minimizatzen. Herri Eskolan, ikastetxetik bi kilometro edo urrunago bizi direnek bakarrik erabili ahal izango dute aurreko autobusa. Ikasle gutxiago izango dira, eta horrek erraztu die antolaketa ere, tartekak hobeto zaindu ahal izango dituztelako. Eskuineko irudia Mendarokoa da. Elgoibar BH Instituturako autobusa hartzen duten ikasleak dira. Maskara jantzita sartu ziren ikasleak autobusera, ilaran jarrita.





**ASIER GISASOLA**  
Mendaro Ikastolako gurasoa

"Beste urte batzuetan baino askoz zailagoa ikusten dut ikasturte hasiera hau. Gure hirugarren semea aurten eskolatuko da, 2 urte bete gabe, abendukoa delako, eta oso zaila ikusten dut egokitzapena ondo egitea, gurasook ezin garelako ikastetxera sartu. Guretzat zaila da, baina batez ere profesionalentzat da zaila. Egoera normalean eginda ere zaila izaten da, umeentzat hau dena berria delako eta ez dutelako nahi izaten beti, baina egokitzapena, hemen, ikastetxe kanpoan, egite hau ez zait batere ondo iruditzen, hezkuntza esparru honetan badaudenean barruan espazioak, aire librean, egokitzapena egin ahal izateko. Nik ez dakit zein den irtenbidea, baina hau ez dut ondo ikusten. Gaur ateri dago, baina euria egiten badu, zer egingo dugu? Tabernara joan andereñoarekin?"



**LEIRE PEREZ**  
Mendaro ikastolako gurasoa

"Zorarena izan da. Joan zen astean jakin genituen gauza asko; berandu eta gaizki. Esango nuke ez dela gure ikastolako kontua; goitik etorri dela dena azkeneko momentuan eta gaizki. COVID-19aren kontu honekin beste urteetan baino urduriago hasi dut ikasturtea, kezkatuta. Alaba nagusia ere berdin etorri da gaur ikastolara, urduri, eta txikia, 4 urtekoa, ez dugu ekarriko momentuan behintzat. Horrekin dena esan dizut".



**GIOVANI GADEA**  
Herri Eskola

"Beti daukagu beldurra, baina eskolako profesionalak ahalegina egiten ari dira, eta guk geuk ere egin behar dugu gurea, profesional horiek ere etxeok dituztelako. Arduraz jokatzea dagokigu denoi. Urduritasuna nabarmena da. Gerta daitekeen horren inguruan espekulatzen dugu, baina zer etorriko zaigun ez dakigu eta irten beharra daukagu. Eskertzen da umeak eskolara itzultzeko egindako ahalegina. Haurrek beharra dute sozializatzeko, baina egoerak okerrera egin eta etxera itzultzeko aginduko baligute ere, onartu beharko genuke. Denon onerako bada, guk ez daukagu ezer esaterik".



**SILVIA HERNANDEZ**  
Herri Eskola

"Hasieran kezka halako bat izan dut, bai. Ikusi nahi nuen nola hasi behar ziren eta hori, baina egia da umeak oso gustura datozela, nirea behintzat bai, eta iruditzen zait normaltasun baten barruan ari direla. Maskara-eta jantzi behar dituzte, bai, baina nik neuk ez daukat beldurrik. Uste dut hemen gertatu daitekeena kalean ere gerta daitekeela eta printzipioz, hemen, nahiko txukun ikusten dut dena".



**IGOR ARRIOLA**  
Elgoibar Ikastola

"Guk gustura hartu dugu umeak eskolara itzultzea, eta umeak ere bai. Sekulako ilusioarekin hasi da. Egoera berezi honek kontziliazioa zaildu digu batez ere. Emazteak murrizketa eskatua dauka eta lehenago irteten da lanetik, baina orain, semea ere aurretik irteten denez, neu etorri behar izaten naiz orduerdirako, emaztea etorri bitarte horretarako. Aiton-amonak ere edadetuak dira, eta arrisku faktore hori ere badago. Baina ez dakigu zer izango den eta holaxe hartu behar dugu. Ikastolak hartu ditu bere neurriak eta geuk ere barneratu beharko ditugu. Egoera berria da denontzat eta denbora beharko dugu egokitzeko. Orain kontua da ia denbora hori izango dugun!"



**ZIORTZA ARROITAJAUREGI**  
Elgoibar Ikastola

"Haurrak bazuen ikastolara itzultzeko gogoia, baina gurasook ez, batez ere beldurragatik eta ezjakintasunagatik, ez genekielako nola konponduko ziren. Baina orain hasi direla eta umea pozik ikusten dugula, geu ere lasaitu garelako esango nuke. Eszedentzia hartzeko eta etxean gelditzeko aukera ere aztertu nuen, baina alaba Lehen Hezkuntzan hasten denez, derrigorrezkoa ikusten genuen hastea. Dagoena da. Triste da batez ere umeentzat, ezin direlako gelakoak ez diren laguntxoekin ibili ikastolan, baina umea lasai eta gustura dagoen bitartean, gu geu ere pozik".



## Iriondo taberna: elgoibartarren bilgune



MIREN MORENO ETA MARIA ANGELES IRIONDO

**Azken urteotan behin baino gehiagotan herrian zabaldu den zurrumurrua egi bihurtu da: Iriondo taberna itxi egin dute, eraikin horretan etxebizitza berriak egingo dituztelako. Elgoibarko historiaren lekuko izan da Iriondo taberna, eta gazte zein helduen topaleku. Adin guztietako bezeroak hartzen zituen Iriondok, eta inor ez zen han lekuz kanpo sentitzen. Gaveko giroa gustuko zutenei nahiz egunez ibiltzea nahiago zutenei ere ematen zien zerbitzua tabernak. Bi etapa nagusi izan ditu tabernak: Remigio Iriondo eta Maria Ostolaza senar-emazteek 1942an ekin zuten etapa, eta 1998tik gaur arte Julen Agirrek eta Elena Chinchillak gidatu dutena.**

- AINHOA ANDONEGI -

**R**emigio Iriondo eta Maria Ostolaza senar-emazteek 1942an zabaldu zuten Iriondo taberna. Aurreko urte batzuetan ere martxan zegoen taberna bat leku berean, baina jabeak kanpotarrak ziren eta taberna salgai jarri zuten. Remigiok San Pedro fabrikari lan egiten zuen, baina aukera ona ikusi zuen taberna harenekin. Maria sukaldari lanetan aritzen zen, eta bere ahizpa Ana joaten zen tabernan laguntzea. Florita Oñederra umeak zaintzen aritzen zen. Gerora, zerbitzari gehiago ere izan zituzten. Neska gazte askorentzat lehenengo lana izan zen Iriondonekoa, eta gehienek ezkondu arte jarduten zuten han. Remigiok berak ere makina bat lan egiten zuen tabernan fabrikatik irten ostean, hasiera batean bi lanak uztartzen jardun zuen-eta. Gerora, tabernak martxa hartu zuenean, fabrika utzi zuen, buru-belarri tabernari lanetan aritzeko, eta horregatik herrian jende askok Remigio izenarekin ezagutzen du gaur egun ere Iriondo. Taberna hartu eta urte gutxira taberna gaineko lehen solairuan etxea erosi zuten, eta han jaio ziren bikotearen bi alabak: Maria Angeles 1944an, eta Ana Mari, 1946an. Jose Miguel, seme nagusia 1940an jaio zen, taberna hartu baino urte eta erdi lehenago.

Hiru seme-alabetatik Maria Angeles bakarrik bizi da gaur egun Elgoibarren. 76 urte ditu, eta burua argi. Ondo gogoan ditu tabernako gorabeherak, eta irribarrez gogoratzen ditu orduko kontuak. Etxea zuten taberna iriondotarrek, eta beraien lanbidea izateaz gain, bizitzaren zati handi bat ere han egiten zuten. Bertan bazkaltzen zuten egunero, eta Eguberrietako ospakizunak ere tabernan egiten zituzten. Seme-alabak nagusitu ahala, Maria Angeles eta Ana Mari ere tabernan hasi ziren zerbitzari lanetan. Garai hartan familietan ohikoa zen alabak etxean gelditzea eta semeak fabrikara joatea, eta iriondotarrenean ere halaxe izan zen, seme nagusiak ere tabernan laguntzen zuen arren.

Elgoibarko taberna garrantzitsuenetarikoa zen Iriondo. Garai hartan ez zegoen 634 errepidea, eta trafikoa gaur egun Pedro Mugurutzaren etorbidea den kaletik pasatzen zen. Horrez gain, Maala ingurune horretan fabrika asko zeuden, bai Pedro Mugurutzaren kalean eta baita Ermuaranbidetan ere, eta lantegi horietako langileak ohiko bezeroak ziren tabernan. Bazkaltzera joaten ziren asko, baina gehienak bazkalosteko kafea hartzen

zuten Iriondonean, lanera joan aurretik. "Kafea, kopa eta purua", esan du Maria Angelesek. Gizonetako kuadrilla asko karta-jokoan egitera joaten ziren, eta mahaiek kuadrillen izena hartu zuten: "Etxekoak ginen denok".

Lan asko egindakoak dira, baina pozik. "Garai hartan ez zegoen ordutegirik, eta ezta oporrik ere. Goizeko zazpirak alderako irekitzen genuen taberna, eta gauean ere nahiko berandu erretiratzeko ginen". Remigiok eta Mariak tabernako lana utzi zutenean, Maria Angeles eta Ana Mari geratu ziren, eta gerora, haien seme-alabak ere ibili izan dira laguntzen. Miren Moreno, Maria Angelesen alabak, gogoan dauka asteburuetan tabernan laguntzen ibili zen sasoi: "Nire anaia Kerman eta Mikel lehengusua ere zapatuetan laguntzera joaten ginen. Jende asko hasi zen etortzen ogitartekoak jatera, eta ama eta izeba sukaldean aritzen ziren bitartean, gu zerbitzen". Gazteak ziren, eta lagunekin kalera irtetea nahiago zuten, baina lagundu beharra zegoen. Maria Angelesek esan du ostalaritza sektore gogorra dela, baina memorian gordeak dituenak oroitzapen onak dira gehienak.

Hala ere, une gogorrek bizitzea ere tokatu izan zaie. 1980ko urriaren 23koa esaterako, Komando Autonomo Kapitalistek Jaime Arrese tiroz hil zutenekoa. Arrese ohiko bezeroa zen Iriondon. Egunero joaten zen kafea hartzera, eta egun hura izan zen bere azkena. Maria Angeles eta Ana Mari barra atzean zeuden, eta atzo izan balitz bezala gogoratzen du une hura Maria Angelesek: "Taberna jendez gainezka zegoen. Eguraldi oso ona egiten zuen, eta tabernako leiho guztiak zabalik zeuden. Ez dakit hiltzailea leihotik edo atetik sartu ote zen, baina



Maria Angeles Iriondo eta bere aita zena, Remigio Iriondo.

berehala dena isildu zen".

Beste une txar batzuen artean uholdeak ditu gogoan. 83an eta 88an izan ziren ufalak Elgoibarren, eta bietan urak hartu zuten Iriondo, "ia sabairaino". Taberna itxura hartan ikustea penagarria zela adierazi du, baina hartatik ere irten ziren, eta erretiroa hartu arte jarraitu zuten tabernan.

## JUBILAZIOA

90eko hamarkada erdialdera taberna lagatzeko unea iritsi zela erabaki zuten. Maria Angeles eta Ana Mari oraindik segitzearen aldekoak ziren, baina seme-alabek esan zieten nahikoa lan egin zutela ordurako. Elgoibarko Izarra egon zen taberna hartzekotan Kafe Antzokia sortzeko. Julen Agirre jarri nahi izan zuten negozio berriaren gidari, baina Elgoibarko Izarrak atzera egin zuen azkenean, eta Toletxe zabaldu zuten. Julen Agirrek

baina, aurrera egin zuen, Elena Chinchillarekin. 1998a zen, eta penaz laga zuten taberna Maria Angelesek eta Ana Mari, baina egindako lanaz harro. Maria Angelesek euskaltegian eman zuen izena, puntua egiteko ikastaro bat egiten ere hasi zen, eta Tertuliak programarako ere eman zuen izena. "Denerako denbora neukan bat-batean, eta bitartean, etxekoandre guztiak beti prisaka ikusten nituen".

Orain beraien jaiotetxea izan dena botako dute, etxe berriak egiteko. Tristura eta poza sentitzen ditu aldi berean: pena dauka etxea botatzearekin batera eroriko delako beraien bizitzaren historiaren zati bat, baina aldi berean pozik dago, alaba bertan bizi delako oraindik eta etxe berria izango duelako. Eraikin berriak ere lokal komertziala edukiko du beheko aldean, baina oraindik ez dakite zer egongo den bertan.



Ezkerrean: Florita Oñederra, Ana eta Maria Ostolaza ahizpak, Remigio Iriondo, Jose Jose Miguel eta Maria Angeles Iriondo neba-arrebak. Eskuinean, Maria Angeles eta Ana Mari Iriondo ahizpak.

# Etapa berria: 1998-2020

**Julen Agirrek eta Elena Chinchillak ekin zioten Iriondo tabernaren etapa berriari 1998an. 22 urte egin dituzte Iriondo tabernan, eta abuztuaren 30ean izan zuten azken eguna.**

Irailak laugarren eguna du gaur. Julen Agirre eta Elena Chinchillarekin daukagu hitzordua, lau egun lehenagora arte elgoibartarren bilgune eta beraien etxe izan den Iriondo tabernan. Ezohiko itxura dauka tabernaren atariak. Aulkiak eta mahaiak jasota daude, toldoa itxita, eta argiak itzalita. Atea ere giltzapetuta dago, baina barrualdean mugimendua somatzen da. Julen eta Elena dabiltza lanean, dena jaso eta taberna husten. Kafe makina oraindik martxan daukate, eta hori izango omen da itzaltzen azkena. Kafe baten bueltan eseri gara, eta hizketan hasitez bat, nostalgiak harrapatu ditu biak. Hunkituta daude, eta malko bat edo beste ere isuri dituzte, taberna bat baino askoz gehiago izan delako Iriondo beraiantzat: etxe eta bizimodu izan dute Iriondo, eta han lanean jardun dutenak "familia modukoa" osatu dute.

1998an hartu zuten Iriondo taberna. Lanbroan zerbitzari zirela ezagutu zuten elkar Elenak eta Julenek, eta adiskide egin ziren. Elgoibarko Izarrak Kafe Antzokia ireki nahi zuen Julenen gidaritzapean, baina proiektu hark Toletxen egin zuen aurrera. Julenek, baina, aurrera egin zuen eta Elenarekin jarri zen harremanetan, bien artean Iriondo zabaltzeko: "Kerman zena etorri zitzaidan ea taberna interesatzen zitzaidan galdezka, beraiak lagatzeko asmoa zutelako, eta Elenarekin jarri nintzen harremanetan". Elenak ezagutu ere ez zuen egiten ordu hartan Iriondo. "Lanbroan lan egiten nuen, eta bai, hantxe parean zegoen Iriondo, baina inoiz barrura sartu gabe nengoen". Julenen proposamena begi onez ikusi zuen Elenak, eta aurrera egitea erabaki zuten. Obra txiki bat egin, hormak margotu, apur bat garbitu eta kafe makina aldatzarekin zabalduko zutela uste zuten, baina ikusi zutenean lokalak ematen zuen aukera, taberna goitik behera eraberritu zuten. Jantokia eta biltegia kendu eta barra luzatu zuten. Txoko desberdinak sortu zituzten tabernan: batetik, liburuak jarri zituzten bezeroentzat. Liburu bat hartu eta etxera eramateko aukera eman zuten, eta batzuek etxeko liburuak ere eramaten zituzten tabernara beste bezeroekin truka-



*Elena Chinchilla eta Julen Agirre.*

zako. Dekorazioan josteko mahaiak eta makinak ere sartu zituzten, Elgoibarren garai batean hain garrantzitsua izan zen jostungintzari eta jostunak izandako Julenen amari eta Elenaren amaginarrebari omenaldi txiki bat egiteko. Ezbairik gabe, taberna berri bat zen.

Goizean goiz irekitzen hasi ziren lehenengo egunetik, biak ere oso kafezaleak direlako. Gosariak ematen hasi ziren, baina garai hartan ez zegoen kalean gosaltzeko ohitura handirik, eta egunez ere ez zen jende askorik ibiltzen tabernan. Hasiera hartan asteburuetako gaueko giroa zen nagusi Elgoibarren. Gogoratzen dute zapatuetan tabernako mahai eta aulkiak erretiratzeko zituztela jendeak dantza egiteko. Gabonak, sanbartolomeak, inauteriak edota Trinitate jaiak egun gogorak izaten ziren lanearako. "A zelako egunak izaten ziren!", gogoratu dute biak ere irribarre batekin. Urteak aurrera joan ahala, Elgoibarko tabernetako giroa asko aldatu zen, eta egunez lan gehiago egiten hasi ziren: "Erabat aldatu zen lan egiteko modua, eta bezeroen tipologia ere bai. Familiak hasi ziren tabernara etortzen umeeekin, eta poliki-poliki egunak irabazi zion gauari". Eta horrekin batera, tabernaren eskaintza ere aldatu egin zuten. Hasieran ogitartekoak eta pintxoak ematen hasi ziren, baina beraiak ta-

bernan bertan bazkaltzen zuten; egun batean barazkiak, beste lan lapikokoa... Egun batean bezero bati esan zioten nahi bazuen beraietzako egindako txitxirioak zituztela, eta horrela hasi ziren eguneko platerak ere eskaintzen. Zerbitzari eta sukaldari asko ezagutu dituzte urte hauetan, bai bertakoak eta baita atzerrikoak ere, eta denengandik ikasi dute zerbait: "Atzerriko sukaldariek beraien herrialdeko jakiak prestatzen hasi ginen eta harrera oso ona izan zuten tabernan". Lantaldea ere etxeko sentitu dute, gertukoa. Batzuek urte asko egin dituzte beraiekin lanean, beste batzuek gutxiago iraun dute, baina "harreman ona" izan dute guztiekin. Ostalaritza mundua gogorra dela esan dute, eta ondorioz langileen joan-etorri handia dagoela sektore honetan. Hala ere, hasiera-hasieratik gaur arte iraun dute Elena beraren hiru ahizpek lanean. Esker oneko hitzak dituzte Iriondotik pasatu diren langile guztientzat.

Langileekin batera, bezeroei eman dizkiete eskerrak. Asko izan dira Iriondoko bezeroak, eta askotarikoak. Baina batek aipamen berezia merezi badu, hori Elena beraren aita izan da. 22 urteotan hutsik egin gabe egunero-egunero etorri da Eibartik Iriondonera hamarretakoa egitera, eta hasierako urteetan, gainera, oinez. Bezero fidelak izan dituzte, eta elgoibartar askorentzat izan da bilgune Iriondo taberna. Karta-jokoan aritzen den kuadrilla bat aipatu dute, tabernaren lehen etapatik itxi duten arte egunero hutsik egin gabe karta-jokoan aritu den kua-



*Dekorazio berezia izan du beti Iriondo tabernak.*



*Julen Agirre, Amaia eta Elena Chinchilla ahizpak, Vergica Gornoava eta Mikel Lopez.*

drilla bat: "Obrak egin eta taberna zabaldu aurretik galdetu ziguten ea kartetan jokatzeko jarraitzen utziko genien". Ez dituzte ahaztu xake taldekoak ere. Azken urteetan Iriondo xake txapelketa antolatu dute Zubi Ondo elkarteak Mikel Leonekin elkarlanean, eta ekimen horren bueltan sortu den giroa nabarmendu nahi izan dute. Horrekin batera, Iriondo tabernak herriko kultur eragile eta kirol taldeei emandako laguntza ere aipatu nahi izan dute, Iriondo kultura eta kirolaren babesle ere izan delako.

Gauza guztiek dute hasiera eta amaiera bat, eta Iriondoren azkena ere iritsi da. Azken urteotan sarri entzun izan da herrian Iriondo itxi behar zuten kontua, baina gero berriz ere zabaltzen zuten herritarren harridurarako, eta bazirudien ez zela inoiz azkena iritsiko. "Duela urte batzuk etxebizitza berriak egiteko saiakera bat egon zen, eta promozio kartela fatxadan geratu zen. Eta guk, irailan, oporrak hartu izan ditugu beti sanbartolomeen ostean, eta jendeak beti uste izan du ez gurela berriz irekiko". Bazekiten noizbait iritsiko zela amaiera, baina aitortu dute us-tekabean harrapatu zituzten berriak. Otsailan jakinarazi zuten jabeek kontratua bukatzean ez zirela gehiago berrituko. Martxoan koronabirusaren pandemiak eztanda egin zuen, eta taberna itxi behar izan zuten: "Uste genuen ez gurela gehiago irekiko". Berriz ere ostalaritza martxan jartzeko baimena eman zuten, eta zalantza egon ziren zabaldu edo ez, baina erabaki zuten 22 urteko etapa ezin zela pandemiaren erdian eta ezer esan gabe bukatu. Azken hilabete hauek bezeroei, herritarrei eta langileei agur esateko baliatu dituzte. 22 urte egin dituzte Iriondo tabernan, eta bai Elenak eta baita Julenek ere esan dute beraien bizitzako esperientziarik onena izan dela. Dena eman die tabernak, eta Iriondori dena emanda doaz. Ez dakite nora, baina, badoaz, momentuz atseden hartzera.

1998 - 2020

## Eskerrik asko etortzeagatik



## 2020/21 Matrikula epea zabalik

### IKASTAROAK

Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun astean, mailaren arabera.

Autoikaskuntza Internet bidez.

Euskara ulertu eta euskaraz bizitzeko ikastaroak.

Mailak: A1, A2, B1, B2, C1, C2.

Azterketa prestatzeko ikastaroak:

HABEren titulu ofizialak, Administrazioa, Osakidetza.

16 urtetik gorakoentzat

Matrikulaldia: irailaren 25era arte

Langabetu, ikasle eta gurasoek **MATRIKULA ERDIA**

Ikastaro amaieran **BEKAK** denentzat. (Baldintzak betez gero)

Informa zaitetz Udal Euskaltegian!

### MATRIKULA ORDUTEGIA

Elgoibar: Aita Agirre Kulturgunea 3, 3.a (eraikin berria)

09:00-13:00 / 15:30-19:30

943 742 731

(COVID-19aren eraginez, moldaketak gerta litezke.)



UDAL  
EUSKALTEGIAK  
Euskaraz hasi. Euskaraz bizi.

Euskaraz hasi + Euskaraz bizi = Euskaraz bizi.







June  
Martin  
Zumeta  
6 urte,  
Elgoibar

*"Itsasoa eta eguzkia"*



Maddi  
Martin  
Zumeta  
6 urte,  
Elgoibar

*"Koloretako mendiak"*





## Iñaki Alvarez Galdos

2020ko irailaren 5ean hil zen, 86 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## Ana Maria Ruiz Lopez

2020ko irailaren 6an hil zen, 94 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

## Jose Etxaniz Iriondo

2019ko irailaren 9an hil zen, 84 urte zituela. Haren oroimenez  
I. urteurreneko meza izango da, domekan, irailaren 13an, 11:30ean,  
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.



I. URTEURRENA

## Isidro Gorosabel Velar

2019ko abuztuaren 10ean hil zen, 85 urte zituela.

**Beti izango zaitugu gogoan.**

Etxekoak



III. URTEURRENA

## Isaac Ramos Lopez

2017ko irailaren 12an hil zen, 66 urte zituela.

**Joan zinen gu hemen utzita,  
baina, jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko.**



VIII. URTEURRENA

## Jose Mari Aramberri Urrutia

2012ko irailaren 13an hil zen. Haren oroimenez VIII. urteurreneko  
meza izango da, domekan, irailaren 13an, 11:30ean  
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz parrokian.  
Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.



**Aldapa gabeko laurik egon ez:** Gauza guztiek dutela zerbait txarra adierazteko; ez dagoela ezer perfektua. Ikus **Arantzarik gabeko larrosarik egon ez.**

## Iñaki Agirre zinemaldia ostegunean hasiko da Donostiako zinemaldiaren 68. edizioarekin bat eginez

**D**atorren barikuan hasiko da Donostiako zinemaldiaren 68. Edizioa eta bezperan ekingo dio Ongarrik irailero antolatzen duen ziklo bereziari. Aurten, *La Camarista* filmarekin emango dio hasiera. Donostia eta Torontoko zinemaldietan arrakasta izan zuen eta Oscar sarriarako izendatu zuten Mexikon.

Zinemaldi honek nazioarteko zinemaldietan ikusitakoa biltzen du eta hainbat generotako filmak proposatzen ditu aurten, zientzia fikzioa, drama eta komedia besteak beste. *Under the Skin*, *El huevo del dinosaurio* eta *Dónde estás, Bernadette* luzemetriak izango dira ikusgai.

Horrez gain, Zinegoak, Bilboko gaylesbotrans zinemaldiari (*Tu me manques*) eta Laburbira sortari tarte egingo zaio aurten. Euskal Topaguneak eskaintzen duen film laburren bilduma da Laburbira. Bi saio hauek dohainik izango dira.

- LEIRE URKIDI -



### LA CAMARISTA



- ◆ 17 eguna / 18 barikua
- ◆ 21:30ean
- ◆ Iraupena: 102'

### UNDER THE SKIN



- ◆ 19 zapatuan. 19:00etan eta 22:15etan, jatorrizko bertsioan
- ◆ 20 domeka. 19:00etan
- ◆ 21 astelehena. 21:30ean
- ◆ Iraupena: 108'

### LABURBIRA



- ◆ 22 martitzena
- ◆ 21:30ean
- ◆ Iraupena: 85'
- ◆ OHARRA: Doan

### TU ME MANQUES (Zinegoak)



- ◆ 23 eguaztena
- ◆ 21:30ean
- ◆ Iraupena: 90'

### EL HUEVO DEL DINOSAURIO



- ◆ 24 eguna / 25 barikua
- ◆ 21:30ean
- ◆ Iraupena: 100'

### DÓNDE ESTÁS, BERNADETTE?



- ◆ 26 zapatua 19:00etan eta 22:15etan, jatorrizko bertsioan
- ◆ 27 domeka, 19:00etan
- ◆ 28 astelehena, 21:30ean
- ◆ Iraupena: 104'

**LANA.....**  
**Eskaintzak**

Astelehenetik-barikura, 7:30etatik 9:00etara, bi ume zaintzeko pertsona bat behar dugu.  
☎ 653 745 992

Umeak eskolara eramateko pertsona baten bila nabil.  
☎ 650 840 620

**Eskaerak**

Umeak goizez ikastolara eramateko prest nago. ☎ 688 654 289

Umeak zaintzeko edo zerbitzari lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat eta euskaraz badakit.  
☎ 642 186 958

Lehen Hezkuntzako Magisteritza Gradua egiten ari den neska algoibartarra edozein adineko haurrak zaintzeko edo 12 urtera arteko haurrei partikularrak emateko prest.  
☎ 646 789 096

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.  
☎ 657 155 078

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest nago. Etxeko langile moduan, orduka, gabez... Erreferentziak ditut, eta papelak legez. ☎ 631 121 148

Adinekoak eta umeak zaindu, garbiketa lanak egin... lan bila nabil. Euskalduna naiz eta adinekoak zaintzeko titulazioa daukat.  
☎ 626 490 986

Erizain laguntzailea naiz eta adinekoak zaintzen egingo nuke lan.  
☎ 643 410 742

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka, ospitalean, gabez edo etxeko langile moduan.  
☎ 631 465 603

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.  
☎ 632 452 026

Adinekoak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz.  
☎ 617 571 210

Adinekoak edo umeak zaintzen edo beste edozertan egingo nuke lan.  
☎ 632 893 515

Neska arduratsua naiz eta lan egin nahi nuke. Adineko pertsonak zaintzeko nahiz garbiketa lanetarako prest nago.  
☎ 642 325 499

Asteburuetan adinekoak orduka zaintzeko prest nago. Berehala hasteko prest.  
☎ 632 344 209

Pinuak moztu edo antzerako basolanak egiteko prest nago. Adinekoak zaintzeko prest ere bai, eta baita sukaldari laguntzaile edo zerbitzaile lanetan aritzeko ere.  
☎ 642 676 242

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest, etxeko langile moduan ere bai.  
☎ 632 024 871

Edozein lan egiteko prest nago, orduka. Asteburuetan etxeko langile moduan ere bai.  
☎ 643 246 279

Adinekoak zaintzen edo beste edozertan egingo nuke lan. Etxeko langile moduan nahiz bestela.  
☎ 643 977 786

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo asteburuetan.  
☎ 688 724 060

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.

**BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:**  
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.

Iragarkari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira. Iragarkari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas  
Euzko Finantza Administrazioen Kontseilua

**Komunitate bateko lehendakaria naiz, eta jakin nahi nuke zer jarduera egin ditzakedan nire komunitatean.**

Lehendakariak komunitateari buruz duen ordezkariak legezko izaera du, ez bakarrik legeak ematen dizkiolako ordezkari-tza-ahalmenak, baizik eta, gainera, komunitateko organo bat delako. Hain zuzen ere, legezko ordezkaria izateagatik, lehendakariak hori egiazta dezake, hala dela frogatuz, notario-ahalorde batean jaso beharrik gabe. Ondorioz, nahikoa izango da idazkariak emandako ziurtagiria, hala-korik izanez gero, edo, figura hori izan ezean, lehendakariak berak emandakoa, ziurtagiria ematen den egunean ziurtagiria egiten duen pertsona presidentea dela adierazita. Kontuan izan behar da lehendakariak komunitatearen ordezkari gisa jarduten duela. Horregatik, gaitasun osoa du komunitateari dagozkion legezko ekintzak gauzatzeko, bere eskubide eta interesen defentsan. Hala ere, horrek ez du esan nahi lehendakaria gai denik bere kabuz eta bere nahierara edozein motatako jarduketak erabakitzeke. Izan ere, Jabeen Batzarrak baino ez du horretarako eskumena, nahiz eta lehendakariak ordezkatzan duen eta bere erabakia gauzatzan duen.

**ONDORIOA: Ahalmen horrek Komunitatearen sinadura ematen dio lehendakariari bere eremuko kudeaketa- eta administrazio egintzetan. Ildo horretan, kontu korranteak ireki ditzake, hornidurak kontrata ditzake, zerbitzuak eman ditzake... eta, beraz, lehendakariak egiten duenak komunitateari eragiten dio. Baina lehendakariak egiten dituen jarduketak horiek Jabeen Batzarrak aldeztu aurretik hala erabakitzen badiu bakarrik abiarazi ahal izango dira. Beraz, bere jardunak legez dagoen ordezkari-tza gaitasun badiu, erantzukizun pertsonala izango du gehiegikeria horiein aurrean.**



**ROSA Ma PINTADO**

*Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2



ZORIONAK

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **prinzesa!** Ondo pasa, eta hobeto ospatu zure 4 urte potoloak! Patxo handi bat etxeko guztien, eta bereziki, Martinez partez!



Zorionak, **Ekhi,** 3 urte bete dituzu-eta. Asko asko maite zaitugu. Patxo handi bat!



Zorionak, **Lea eta Danel,** igandean 3 urte egingo dituzuelako. Muxu asko, familiakoen partez.



Zorionak, **Danel,** igandean, 8 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxeko guztion partez. Ederki ospatuko dugu!

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€.

Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€.

Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen

ekarri behar dira BARRENeke bulegora,

edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



BARREN

Jarri ezazu zure publizitatea  
**BARREN** astekarian edo  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean

**943 743 704**  
**688 634 044**

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

Aita Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

## KG39NXIDA COMBI SIEMENS HOZKAILUA



- HyperFresh kutxa, hezetasun-kontrolarekin, frutak eta barazkiak luzarago kontserbatzeko.
- SuperCooling: hozte azkarragoa du.
- MultiAirflow sistema: airea modu uniformean banatzen du hozkailuaren barruan, temperatura konstante mantenduz.
- Energia-mota A+++
- NO frost
- Hatz marka kontrako herdoilgaitza
- 203 metroko altuera

**899 €**

# MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dandako prezioak. Produktuak agortu arte.

**LIBURU AURKEZPENA**

# DENDAOSTEKOAK

**UXUE ALBERDI**

Irailak 23, asteazkena  
19:00etan, Aita Agirre Kulturunean

Izena aurrez eman behar da:  
943 741 626  
[elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)

25 lagunentzako aforo mugatua.



**Susa**



Dharra: jende gehiegok izena emanez gero  
2. aurkezpen bat egingo dugu 20:00etan

## 11 BARIKUA

**21:00** Bideo foruma: 'Difret'. Haizea emakume taldeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Doan.

## 17 EGUENA

**15:30 / 18:00** Gurasoentzako formakuntza saioak: 'Familiaren garapena'. Lehenengo saioa euskaraz izango da, eta bigarrena, gaztelaniaz.

## Zinea (Herriko Antzokian)



'La camarista'  
17 eguena: 21:30  
18 barikua: 21:30

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00


GUARDIAK		Egunez: 09:00-22:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)	
11 BARIKAKUA	12 ZAPATUA	13 DOMEKA	14 ASTELEHENA	15 MARTITZENA	16 EGUAZTENA	17 EGUENA	18 BARIKAKUA
Egunez <b>*Ibañez</b>	Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>Arriola</b>	Egunez <b>*Fernandez</b>	Egunez <b>Barrenetxea</b>	Egunez <b>*Oruesagasti</b>	Egunez <b>Barrenetxea</b>
Iluntzean <b>Arriola</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Arriola</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>

**\* Fernandez:**  
Herriko Enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

**\* Ibañez:**  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

**\* Oruesagasti:**  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00**  
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)  
943 206 984



### Cristina Lizundia Garate

2020ko irailaren 4an hil zen, 90 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Maitasunez, beti gure bihotzean**

Zure ilobak





I. URTEURRENA

## *Marcelina Soraluce Leyaristi*

2019ko apirilaren 4an hil zen, 88 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, irailaren 13an, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.

***Nahiz eta hemendik urrutira joan,  
beti izango zaitugu gure bihotzean.***

Etxekoak



IV. URTEURRENA

## *Jesus Ansola Arana*

*"Txanbolin"*

2016ko irailaren 11n hil zen, 78 urte zituela.

***Izan zarena,  
erakutsi duzun kemena,  
gure artean geldituko da  
zugandik jasotako dena.***



IX. URTEURRENA

## *Leire Ugarteburu Gabilondo*

***Urteko egun guztietan  
bizi eta biziko  
gure gogo-bihotzetan  
maite hori!***

Etxekoak

2011 - 08 - 18

# GERTU

Gestora de Cooperativas

# Iriondo eraikina

Pedro Muguruza, 2, ELGOIBAR



Eraikitzen:

**ABANTON BILBAO**  
GRUPO



- Elgoibarko erdigunean.
- 10 etxebizitza, 3 logelakoak. Logela guztiak kanpora ematen dute.
- Obra hasiera: 2020. urtearen amaiera.

Informazio gehiago

📞 943 458 731 - ✉ info@gertugestora.com - www.gertugestora.com